

Familia bazkaria
Nutrizioa – Euskara

1. SEKUENTZIA. Kanpoan: kalea.

Inma eta Iker kaletik oinez doaz.

INMA

Nire gurasoekin bazkaldu aurretik gauza pare bat esan behar dizkizut. Lehenik eta behin, nire etxean egunean bost otordu egitekoak gara: gosaria, hamaiketakoa, bazkaria, merienda eta afaria.

IKER

Bai, noski! Dieta orekatu batek eskatu bezala.

INMA

Bigarrena, nire gurasoei ez zaie batere gustatzen janaria botatzea. Beraz, badakizu, platera garbi-garbi.

IKER

Lasai, neska, nik den-dena jaten dut-eta.

INMA

Beste kontu bat, ezta pentsatu ere zer jan nahi duzun esaterik. Bestela, hartu eta momentuan bertan prestatuko dizute, nire gurasoak horrelakoak dira-eta.

IKER

Ez, ez, lasai. Gainera, dietan nago oraintxe bertan.

INMA

Bai, bai, baina ondo ezagutzen zaitut eta badaezpada diot, ahobero hutsa zara-eta.

IKER

Ezetz, lasai egon, neska.

MOZTU HONA:

2. SEKUENTZIA. JANGELA.

Jangela batean Iker, Ane, Inma eta Santi ageri dira, guztiak ere bazkaltzen.

Mahai ganean Santik Ikerren aurrean utzitako hiru oilasko erre ageri dira. Iker zeharo txundituta dago. Inmak buruarekin ezetz egin eta haserre begiratzen dio Ikerri.

INMA

Zer esan dizut?

MOZTU HONA:

3. SEKUENTZIA. JANGELA.

Iker, Inma eta Ane mahaiaren bueltan daude. Santik entsalada bat zerbitzatzeko du. Honako mezua azaltzen da gaininpresio gisa: «5 minutu lehenago».

IKER

Oilasko errea? Hori bai gutizia! Ni neu, gose izanez gero, otordu bakarrean hiru jateko ere gauza naiz! Hiru!

MOZTU HONA:

4. SEKUENTZIA. JANGELA.

Iker, Inma eta Ane mahaiaren bueltan daude oraindik. Ane mahaia jasotzen ari da, eta, bien bitartean, Iker izerdi patsetan da, hirugarren oilaskoa ahal bezala bukatzen ari den bitartean.

INMA

Orain postrea dator, eta, badakizu, ez ezazu berriz ere hanka sartu!

IKER

Ez, ez, lasai.

ANE

Postrerako flana dago. Gustatzen zaizu?

IKER

Flana? E... bai, gustatzen zait, baina zati txiki bat atera, mesedez, oso txikia...

ANE

Esnegainarekin?

IKER

Bai, nahi beste esnegain bota.

MOZTU HONA:

5. SEKUENTZIA. JANGELA.

Ikerrek aurpegia bera ere estaltzen dion plater bat du aurrez aurre, esnegainez goraino beteta; esnegainaren puntan flan zati txiki bat ageri da. Iker platerari begira dago, zuri-zuri. Inmak buruarekin ezetz egiten du.

INMA

Ez duzu ikasten, ezta?

IKER

Hau amaitu beharra al dago?

ANE

Hemen ez dugu ezer zaborretara botatzen!

Ikerrek esnegain mendian sartzen du koilara, kezka-kezka eginda. Santi mahaitik altxatzen da.

SANTI

Kopatxo bat postrea laguntzeko?

INMA (*Ikerri ahopeka*)

Kontuz zer eskatzen duzun...

IKER

Lasai, ikasi dut-eta. Oraingoan ez dut hanka sartuko...

MOZTU HONA:

6. SEKUENTZIA. JANGELA.

Ikerrek arrainontzi ikaragarria du aurrez aurre, gin-tonic gisa prestatuta. Izotzak, limoia, ezamihilua... ikus daitezke. Iker gin-tonic ikaragarriari begira dago zur eta lur, Inmak buruarekin ezets egiten dion bitartean, haserre.

INMA

Zertarako esaten dizkizut gauzak?

MOZTU HONA:

7. SEKUENTZIA. JANGELA.

Iker Santirekin eta Anerekin hizketan ari da, guztiak zutik direla. Honako mezua azaltzen da gaininpresio gisa: «5 minutu lehenago».

IKER

Gin-tonica? Nik kopa handian ez, nik arrainontzian edaten dut! Eta minutu bakarrean!

MOZTU HONA:

8. SEKUENTZIA. JANGELA.

Iker gin-tonic arrainontzira begira dago, kezka aurpegiarekin. Santik, serio-serio, kronometro bat atera eta martxan jartzen du, Ikerri begira-begira dela.

SANTI

Hasi, laster merienda ordua ere helduko zaigu-eta!

ANE

Eta afaltzera ere geratuko zara, ezta?